

JARRERAK, INTERESAK ETA PREMIAK

Gatazka batean nahastuta gaudenean ezinbestekoa da informazio egokia izatea. Bestela, ez dugu jakingo konpondu beharreko arazoa zein den. Beste alderdiaren premiak baloratu eta ezagutu ahal izateko, berarekin komunikazio erraza eta garbia eduki behar dugu; gatazkari buruzko informazioa lortzeko behar diren galderak egin behar dizkiogu, eta ematen digun informazioa arretaz entzun.

Gatazka ahalik eta hobekien konpontzen saiatuko gara. Gatazkek biolentziarik gabe ebazteko, nahitaezkoa da alderdiek talde prozesuaren aurreko lau pausoak jarraitzea: lasaitzea, finkatzea, lankidetzeta eta komunikazioa (sentimenduak barne). Hori da aurrera egiteko modu konstruktibo bakarra.

Orokorrean, gatazka baten aurrean gaudenean, gure jarreratik abiatuz saiatzen gara arazoa konpontzen. Baina jarreraren atzean interes eta premia batzuk daude. Premietatik konponbide asko atera ditzakegu, baina jarreretatik ez.

Gatazkek konpondu ahal izateko, bi alderdien premiak eta interesak kontuan hartu behar dira. Gatazkek premietatik abiatuz ebazten saiatzen bagara, arazoa errotik konponduko dugu. Izan ere, bi alderdien interesak eta premiak aztertzen baditugu, puntu komunen batera iritsiko gara, eta horri esker, bi alderdiak asebetetzen dituen irtenbide bat aurkituko dugu.

